

Etxeko Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

Enpresa: Kutxabank Aseguradora, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U.

Kutxabank Vida y Pensiones-en Banka Aseguruen Operadore eskusiboa da Kutxabank; Kutxabank Aseguradora-rekin eragiketak egiteko baimena du, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago, C0654A95653077 zenbakiarekin.

Produktua: Kutxabank Etxe Asegurua



Dokumentu honen helburua da etxeko aseguru honi buruzko gako-informazioa ematea. Kontratua egin aurreko informazioa eta kontratua egiteko informazioa aurretiazko informazioan, Kontratuan eta Aseguru-kontratuarekin batera ematen den gainerako dokumentazioan ematen da.

Zertan datza mota honetako aseguru?

Etxebizitza bati eta bertan dauden ondasunei eragin diezaiaketen arrisku askoren estaldurak, betiere itundutako mugetaraino gehienez, Kontratu bakar batean sartzen dituen arrisku-aseguru bat da. Halaber, aseguratuaren erantzukizun zibila eta defentsa juridikoa estaltzen ditu bere familia-bizitzaren egoera desberdinei dagokienez.



Zer aseguratzen da?

- ✓ Sute, leherketa, tximista erortze eta keagatiko kalteak.
- ✓ Urak sortutako kalteak uholdeetan eta ur-isurketetan.
- ✓ Etxebizitza barruko lapurreta eta ebasketa.
- ✓ Etxebizitzatik kanpoko lapurreta.
- ✓ Kristalak, beira-plakak, ispiluak, loza sanitarioa, marmola eta bitrozeramikazko plakak haustea.
- ✓ Erantzukizun Zibila.
- ✓ Gaintentsioagatiko kalte elektrikoak.
- ✓ Gauzen talka edo kolpeengatiko kalteak.
- ✓ Fenomeno atmosferikoen kalteak.
- ✓ Babes juridikoa.
- ✓ Etxeko laguntza.
- ✓ Kalte-ordaina erabileragatiko balio-galerarik gabe, ezta kapital aseguratuaren balorazioagatik ere.
- ✓ Etxeko istripuak eta istripu pertsonalak.
- ✓ Kreditu-txartelen maualazko erabilera.
- ✓ Giltzak lapurtu, espoliatu edo atrakatzeagatik sarrailak eta giltzak ordezteak.
- ✓ Etxean bizi ezin delako beste etxebizitza baten edo hotelaren errenta.
- ✓ Aseguratutako higiezinaren elementuen estetika zaharberritzea.
- ✓ Suhiltzaileen gastuak eta hondakinak kentzeko gastuak.
- ✓ Dokumentuak berregiteko gastuak.
- ✓ Bandalismozko edo asmo txarreko ekintzengatiko kalteak.
- ✓ Estaldura horietako batzuk zabal daitezke "Kutxabank Premium Packa" kontratatuz.
- ✓ Esku-trebea zerbitzua ("Kutxabank Premium Packa" kontratatuz gero).



Zer ez dago aseguratuta?

Ez daude aseguratuta kalte hauek:

- ✗ Kontratugileak edo Aseguratuak fede gaiztoz egindakoak.
- ✗ Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estalitakoak.
- ✗ Erreakzio edo erradiazio nuklearragatik sortutakoak, edo kutsadura erradioaktiboagatik, edo gatazka armatuengatik edo katastrofe edo hondamen nazional gisa kalifikatutako gertaerengatik.
- ✗ Ondasun aseguratuaren berezko akatsak edo kontserbazio-egoera txarrak eragindakoak.
- ✗ Kaltea sortu duen objektuak jasandakoak.
- ✗ Zeharkako galerak.

Berme bakoitzaren beste gertakari espezifiko batzuk ere ez daude aseguratuta, honako hauek besteak beste:

- ✗ Edozein motatako negozio edo industria garatzeko erabilitako etxebizitzak.
- ✗ Aseguratuaren zabarkeria larri batengatik sortutako suteak edo lapurretak.
- ✗ Aseguratutako ondasunen pixkanakako narriaduragatik edo etengabeko hezetasunagatik eragindako kalteak.
- ✗ Kristal, beira-kristal eta ispiluen marradurak edo narriatze arinak.
- ✗ Etxebizitzatik kanpoko ebasketak.
- ✗ Aseguratuak ekiditeko modukoa zen ekintza iraunkor batek eragindako erantzukizun zibila.
- ✗ Aseguratuak aurre egin beharreko kalte-ordainak, isunak edo zehapenak.



Badago murriztapenik estaldura honi dagokionez?

- ! Erantzukizun Zibila: gehienez 300.000 € erreklamazio bakoitzeko (Kutxabank Premium Packa kontratatzen bada, 300.000 € gehigarri gehienez erreklamazio bakoitzeko).
- ! Babes juridikoa: gehienez 30.000 € zerbitzua ematen den bakoitzeko.
- ! Etxebizitza aseguruaren estetika zaharberritzea: gehienez 1.803,04 € ("Kutxabank Premium Packa" kontratatzen bada, 3.000 € gehigarri gehienez).
- ! Etxebizitzan dirua lapurtzea: gehienez 300 €
- ! Etxetik kanpoko atrakoa: gehienez 1.200 €.
- ! Kreditu-txartelen maulazko erabilera: gehienez 360 €.



Non izango dut estaldura?

- ✓ Lurralde nazionalen.



Zein dira nire betebeharrak?

- ✓ Asegurua ordaintzea.
- ✓ Asegurua formalizatu aurretik, arriskua behar bezala baloratzeko beharrezkoa den informazioa ematea aseguru-etxeari.
- ✓ Arriskuaren balorazioari eragin diezaiokeen edozein informazio-aldaketa jakinaraztea aseguru-etxeari aseguruak indarrean dirauen bitartean.
- ✓ Zazpi eguneko epearen barruan aseguru-etxeari jakinaraztea edozein galera, kalte edo gorabehera, eta kalteak egiaztatzeko eta baloratzeko beharrezkoa den edozein informazio jakinaraztea.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

- ✓ Lehen ordainketa kontratatzeko unean egin behar da eta hurrengoak aseguru-aldi bakoitza hasi aurretik. Ordainketa banku-kontuko kargu bidez egingo da. Zenbait kasutan aukera daiteke ordainketa hileroko, hiru hilean behin, sei hilean behin edo hainbat urtez behin egitea, inolako errekararik gabe.



Noiz hasten da eta noiz amaitzen da estaldura?

- ✓ Estaldura kontratuaren baldintzetan zehaztutako datan hasten da, eta aldi horren luzapena adostu daiteke.



Nola deusezta dezaket kontratua?

- ✓ Estaldura amaitu baino hilabete lehenago jakinarazi behar diozu aseguru-etxeari.